

BIZIKLIK!

Funtsezko elkarteak

Zein dira behar ditugun bazkide eta hornitzaile nagusiak gure proiektuak funtziona dezan?

Gure hornitzaile nagusiak gure enpresak saltzen duen produktua ekoizteko piezak (metalezkoak batik bat) eta behar ditugun makinak ekoizten dituzten enpresak izango dira. Gainera, *marketing* enpresa batek gure enpresaren publizitate kontuak kudeatuko ditu. Garraio enpresa bat beharko dugu ere gure produktua bezeroari helarazteko. Azkenik, kiroldegiak behar ditugu, gure bezero nagusiak izango baitira.

Zergatik dira garrantzitsuak guretzako?

Metalezko piezak ekoizten dituzten enpresak beharrezkoak ditugu produktua ekoiztu ahal izateko eta materiala lortzeko. Bestalde, *marketing* enpresa bat behar dugu enpresa ezaguna egiteko eta ahalik eta pertsona gehienei iritsi ahal izateko, publizitate egokia ezinbestekoa baita hori lortzeko. Garraio enpresa ezinbestekoa dugu ere, gure enpresaren banaketa-kanala baita. Azkenik, kiroldegiak garrantzizkoak dira guretzat diru-etekinak lortu ahal izateko ezinbestekoak direlako, gure produktua erabilgarria aurkitu eta erosi egingo dutenak baitira.

